

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Donejakue Bideko Lagunen elkarteei emango zaien Urrezko Domina 2011ko Nafarroaren Eguneko ekitaldi nagusia

Jaieguna elizkizun batekin hasiko da Xabierko basilikan eta Nafarroako hainbat udalerritan antolatutako 70 kontzerturekin amaituko da

Viernes, 02 de diciembre de 2011

2011ko Nafarroaren Eguna ospatzeko Foru Gobernuak antolatutako ekitaldi programa larunbat honetan, abenduak 3, helduko da gorenera, Urrezko Dominaren ematearekin eta San Frantzisko Xabierren eguna ospatzeko hainbat udalerritan antolatu diren 70 kontzertu ingururekin.



Nafarroako Urrezko Dominaren ematea.

Eguneko ekitaldi nagusia Nafarroako Urrezko Dominaren ematea izango da. Foru Komunitateko intsignia garrantzitsua Donejakue Bideko Lagunen elkarteei emango zaie aurten, Donejakue Bidea birgaitzeko egin duten ekarpena eskertzeko.

Ekitaldia eguadi 12etan hasiko da Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako Departamentuaren patio isabelarrean. Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakaria izango da buru eta Foru Komunitateko agintari eta ordezkari nagusiak berataratuko dira.

Omendutako elkarteetako lehendakariak jasoko dute domina: Javier Caamaño, Lizarrakoa; José Fernández, Urdazubi-Baztangoa; Gerardo Zúñiga, Los Arcos-ekoa; Eduardo Serrano, Erriberakoa; eta María Victoria Arraiza, Nafarroa osokoa.

Aurten Lizarrako elkarte (Espainian sortu zen lehenengo Donejakue Bideko Lagunen elkarte) bere urrezko ezteilak ospatzen ari da eta Foru Komunitateko elkarte, berriz, zilarrezko ezteilak.

Canal 4 eta Canal 6 telebista kateek zuzeneman eskainiko dute ospakizuna, eta Popular TV telebistak Urrezko Dominaren emateari buruzko programa berezia eskainiko du 20.30etatik aurrera.

Saria eman aurretik, San Frantzisko Xabierren omenezko elizkizuna egingo da Xabierko basilikan. Eukaristia 9.45etan hasiko da eta Francisco Pérez Iruñako artzapezpikuak eta Tuterako apezpikuak emango du. Meza honetan, besteak beste, Nafarroako Gobernu kideek hartuko dute parte, Yolanda Barcina Lehendakaria buru dela.

70 kontzertu aldi berean

Abenduaren 3rako antolatutako ekitaldi programaren barruan, Nafarroako 70 abesbatza eta musika bandek aldi bereko kontzertuak eskainiko dituzte beste hainbeste udalerritan. Guztiak 13tan hasiko dira (Iruñako Misericordi Etxekoa izan ezik, 12tan hasiko dela) Nafarroako ereserkiarekin. Jarraian, parte hartzen duten taldeek egindako programa bereziak entzungo dira.

Amaitzeko, Nazioen Jaialdia antolatu da. Burlatako kultur-etxean egingo da, 12.30etatik aurrera. Bertan, Peru, Errumania, Argentina, Kolonbia, Nigeria, Ekuador eta Bulgariako elkarteek euren jaioterriko musika eta dantza tradizionalak eskainiko dituzte eta Tándem Dúo, Salvador Tarazona eta Santiago Pizana perkusionistek osaturiko taldeak, joko du.